


MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 21. aldizkaria
/ 2017ko urtarrila



*Itsaslurreko
pasealekurako
sarbideak
eraberritzeko
proiektua*

/5. orria

*Udala saritua,
gizarte-ekintza
arloan duen
politika dela eta*

/2. orria

*Barbadunen
bide-zidorra
Pobaleraino
iritsiko da*

/3. orria

*Hobekuntzak
udalerriko
argiteria-
lineatan*

/4. orria

*Pobeñako
auzo-elkartea*

/6. orria

Editoriala

Konpromisoak betez eta ilusioa piztuz

2016. urterako finkatutako konpromisoak bete ondoren, lanean ari gara 2017. urterako eta ondorengo urteetarako ilusio berriak pizteko. Akordioak eta egonkortasuna izan dira urte honen ezaugarri, eta, gainera, bi gertaera garrantzitsuk emango diote amaiera urteari: Muskizetik Pobalera arteko ibai-pasealekua egiteko proiektuaren onarpena eta Muskizko institutu berria gauzatu ahal izateko Eusko Jaurlaritzari lagatako lurrak.

Bestalde, bereziki nabarmendu nahi dut egoerarik ahulenean dauden pertsonak babesten dituen sistemari eusteko egin ditugun ahaleginak (adinekoak, ahalmen urrikoak, batere ordainsa-



Aterpetxeak Eguneko Zentroari egindako dohaintza

Tradizioari jarraiki, Pobeñako Aterpetxean aritzen diren boluntarioek eta udal-arduradunek ekitaldi honetako uda garaian dohaintzen bidez bildu dituzten ia 5.000 euroak eman dituzte. Oraingoan, Eguneko Zentroan eskala mugikor bat edo "eskailerak igotzeko gailu" bat jartzeko egin dute dohaintza. Dena dela, udal-arduradunen asmoa da motorra, aulki-uhala, burukoa eta oin-euskarri tolesgarria dituen gurpil-aulki hori mugikortasun-arazoak dituzten muskiztar guztiak eskura izatea.



Bizitza-ohitura osasuntsuak ikastetxeetan

Mendekotasunen Prebentziorako Udal Zerbitzuak elkarlanean jarraitzen du ikastetxeekin, ikasleen adinei egokitutako jarduerak eginez, era didaktikoan eta hezigarrian, besteak beste, elikatzeko ohitura osasuntsuak, alkohola, tabakoa eta bestelako drogak hartzeak dakartzan arriskuak, eta harreman pertsonalak lantzen ikasteko. Programa honetan ikastetxe guztiak daude sartuta, salbuespenik gabe, eta, gutxi gorabehera, 5 eta 17 urte arteko 1.300 ikaslek hartzen dute parte. Bestalde, programako jarduerak jarraitzea izaten dute denboran.

“Proiektu berriekin ari gara lanean, 2017an Muskizko udalerria erreferentea izan dadin

ririk jasotzen ez dutenak, gutxieneko kopurua jasotzen duten pentsiodunak eta alargunak, tratu txarrak hartutako emakumeak, luzaroko langabeak, etab.). Izan ere, haiek dira gure kezka nagusia. Aurrerantzean, lanean jarraituko dugu pertsonen alde egiten, eta gizarte-zerbitzuei eta prestakuntzarako eta enplegurako laguntzei eusten.

2017. urtean, aukera izango dugu hartu ditugun konpromiso berriak nola sendotzen diren ikusteko: auzoak, kirol-instalazioak, kultura-programak, herriarren segurtasuna, hirigintzako eta uholdeetarako planak, etxebizitza publikoa... Muskiz erreferentea izan dadin arlo guztietan.

Zorionak eta urte berri on!

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea

Udala saritua, gizarte-ekintzari emandako bultzadagatik

Udalbatzak ahalegina egin du muskiztarren beharrezan betetzen dituzten zerbitzuak eta jarduerak egiteko, eta ahalegin horrek saria jaso du orain dela gutxi. Izan ere, Guztion Artean Eginez foroak onespenez berezia aitortu dio Udalari, jantoki sozialean, Familien Atsedenaldirako Zentroan eta, bereziki, Garraio Egokituko Zerbitzuan egindako lanagatik. Enpresa-elkarte horrek berariaz nabarmendu du Muskizko Udala erreferentea dela Bizkaian, arlo sozialean hartu duen jarrera arduratsugatik, eta, horren ondorioz, herritarrei emandako arreten kalitateagatik eta aniztasunagatik.





Barbadun ibaiko pasealekua Pobaleko burdinolaraino iritsiko da

Muskizko “birika berdea” izenarekin ezagutzen den proiektuaren bigarren eta azken fasea 2017. urtean gauzatuko da, aurreikusitakoaren arabera. BEZ eta guzti 1.800.000 euro inguruko hasierako aurrekontua du. Udalaren osoko bilkuran onetsi berri da lan hauek kontratatzeko espedientea, eta, haien bidez, Barbadun ibaiaren ertzak birgaitu ahal izango dira, natura-gune batean txertatutako aisialdirako leku bat sortzeko.

Fase berri hori gauzatzen denean, herria hamabi kilometro luzeko aisialdiko gune batekin hornitzeko proiektua amaituko da. Horri esker, herriko auzo guztiak lotu ahal izango dira. Gaur egun Arena hondartza eta Muskizko erdialdea lotzen dituen ibaiko pasealekua Pobaleko burdinolaraino zabalduko da: ibaiak eta ur-isuriaren jarioak gaindituko ditu, natura-inguruan erabat txertatutako zurezko bost pasabideren bidez.



Hobekuntzak Muskizko bi ikastetxe publikotan

Joan den azaroaren bukaeran, Udaltzazak neurriak onetsi zituen bi ikastetxe publikoren instalazioak hobetzeko. Alde batetik, berretsi egin da BHI berria eraikitzeko behar diren lursailak Eusko Jaurlaritzari emateko hitzarmena, eta, bestetik, egokitzan ari dira Cantarrana ikastetxeko aisialdiko guneak zabaltzeko Udalak bereganatu zituen Magdalena kaleko 578 m²-ko lursailak.



Aurrekontu parte-hartzaileei buruzko informazioa emateko jardunaldia

Udalak aukera eman die herritarrei udal-aurrekontua osatzeko proiektuan parte hartzeko, aginpideak hartzen dituen erabakietan herritarren engeiamendua bultzatzeko ahaleginean. Gobernu Irekiko sailak antolatutako lehenengo informazio-jardunaldian jakinarazi zen zertan datzan parte-hartzea, proiektuaren fase guztiak eta muskiztarren proposamenak jaso ahal izateko atondutako kanalak zein diren.



Bederatzi langabe lan-merkatuan sartu dira

Muskizko erroldatutako zazpi emakume eta bi gizon Udalak, Forlanek eta Lanbideek hurrengo sei hilabeteetarako sortutako administrazio-, ofizial-, peoi- eta teknikari-postuetan sartu dira. Oraingo honetan, Euskal Enplegu Zerbitzuak 82.085 € bideratu ditu enplegua eta laneratzea sustatzeko ekimen berri honetarako, eta Udalak, berriz, 23.260 €.




Morenillo bidea birgaitzea

Bide-zorua eraberritzeko lanen azken zenbatekoa 81.800 eurokoa izango da, BEZ barne. Lan horretan, honakoak sartzen dira: gainazaleko geruza eta oinarrikoa birgaitzea, bide ertzeko areka sasiz garbitzea eta soiltzea, eta, orobat, bertako ur bideak lurpean sartzea. Lanak egiten ari dira gaur egun.



Hobekuntzak argiteriako hamaika lineatan

Udalbatza hobekuntza-lanak egiten ari da udalerriko hamaika eremutako argiteria-lineatan, 39.650 euro inguruko inbertsio orokorrarekin, BEZ barne. Kale-argi berriak instalatu dira Sobalbadunen, Ertzaintzaren aparkalekuetan eta Malekoian; bien bitartean, hondatutako instalazioak eraberritzen ari dira El Cerro, El Haya, La Cavila, La Rabuda, La Campa, Ikastola eta El Carrejon, bertako bolatokian.



Arenao bidea berrituta

El Carrascal eta La Rigada auzoak lotzen dituen Arenao bidea eraberritzeko lanak bukatu dituzte. Horiei esker, bide-zoruan zoladura jarri dute, pendiza gehiegizkoa zen guneetan jaitsi egin dute, eta euri-urak kanalizatu dituzte. Lanen zenbateko osoa 78.229 eurokoa izan da.



Familia eta guraso-elkarteentzako dirulaguntzak

Guztira, 18.000 euro bideratu dira jarduera kulturalak egiten dituzten bost guraso-elkarte diruz laguntzeko. Elkarre horietako bakoitzari eman zaion zenbatekoa 2.264 eta 4.397 € bitartekoa da. Bestalde, 168 izan dira Udalak emandako 20.000 euroko laguntzak jaso ahal izan dituzten ikasleak, ikastetxera itzultzerakoan eskolako materiala eskuratzeak duen eragin ekonomikoa gutxitzeko. Laguntza bakoitza 115 eurokoa da derrigorrezko hezkuntzako ikasle bat duten elkarbizitza-unitateentzat, 130 eurokoa bi dituztenentzat eta 345 eurokoa hiru dituztenentzat.



Meatze Barrutiak Interpretatzeko Plana

Udalbatzak Muskizko Meatze Barrutiak Interpretatzeko Plana osatzeko esleipena egin du. Horren bidez, diagnostikoa egin ahal izango da, Muskizko iraganeko parte diren kokagune horietara iristeko sarbideen interpretazioaz eta seinalezatze-lanaz. Izan ere, itsasaldeko meatze-paisaiari dagokion balioa emateko berreskuratu nahi dute. Plan berri horren bidez, instalazio guztietako "interpretazio-gidoia" diseinatuko da; hau da, herritarrei jakinarazi nahi zaien mezua erabakiko da, bai orokorrean, bai eta eremu bakoitzean ere. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu du Interpretazio Planaren kostua.



Itsaslurreko pasealekurako sarbideak eraberritzeko proiektua

Udalak aurreikusita daukanaren arabera, 2017ko lehenengo hiruhilekoan hasiko dira Kobaron auzotik Itsaslurreko pasealekura sartzeko bideak birgaitzeko eta egokitze-lanak. Proiektu horrek 500.000 € inguruko aurrekontua dauka, eta 2015eko udan Jose MacLennan de Minas S.L. enpresarekin lortutako hitzarmenari esker gauzatuko da. Laster konpontzen hasiko

diren El Hoyo ingurunean hasten diren bideak proiektuaren barruan sartu zituzten.

Udalaren Auzotik programako lehenengo ekimen bezala, Gobernu Irekiko udal-arloak informazioko jardunaldi bat egin du, inguru horretako herritarrek proiektuaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutu ditzaten, eta nahi dutena iradokitzeko aukera izan dezaten.



Pediatria-gela girotzeko lanak

Pediatriako gela Kultur Etxeko behe solairuko hegoaldeko eta ekialdeko fatxadetan dago kokatuta, eta, ondorioz, bertako lokaletan aparteko beroa egiten du uda sasoiari. Hori dela eta, Udalbatzak 13.000 euroko diru-partida bideratu du, Osasun Etxeko gune horretako erizaintza, itxarongela eta mediku-bulegoko 70 metro koadroetan airea girotzeko. Egin beharreko lanak 2017ko lehenengo hiruhilekoan hasiko dira.



Energia Kudeaketari emandako Diamante saria

Muskizko Udalak eraginkortasun energetikoaren arloan bultzatutako ekimenak bi sari jaso ditu azkeneko hilabeteetan. Joan den azaroan, udal-ordezkariek AERCE elkartearen Diamante saria jaso dute, eta apirilean, berriz, Udalaren Energia Plangintzako Jardunaldiaren aintzatespena jaso zuten, Hiri eta Udal Iraunkorren Europako 8. Batzarrean.



Saneamenduko proiektuak Carrascal, Santelices eta Memerea auzoetarako

Udaleko auzo guztiak oinarrizko zerbitzuz hornitzeko politikaren barruan, Udalak aurreikusi du aurrera jarraitzea saneamenduko sarean inguru gehiago txertatzen, eta edateko uraren hornikuntzan eta euri-uren kanalizazioan hautemandako akatsak konpontzen. Orain dela gutxi Villanueva eta La Rabudan lanak egin ondoren, hurrena, Carrascal, Santelices eta Memerea auzoetan egingo dira esku-hartzeak. Horren harira, Udalak Ur Partzuergoari eman dio auzo horietako proiektuak idazteko ardura.

Elkarrizketa



Pobeñako auzo- elkartea, kultura sustatzeko ahalegin betean

Pobeñako Auzolaguna elkartearen eta Sokorroko Ama jai-batzordearen bidez, Pobeñako auzotarrek, adin eta baldintza sozialen nahaste-borraste betean, “betidanik” antolatu izan dituzte ekitaldi kulturalak. Esate baterako, Errege Magoen ohiko desfilea 1951z geroztik egiten da. Horri dela eta, Ezkerraldeko eta Meatzealde osoko desfilerik zaharrena da.

G/ Zer jarduera antolatu ohi ditu elkarteak?
E/ Urtarrilean, 80 eta 100 pertsona bitartean izaten dira Errege Magoen desfilean parte-hartzaile, behar bezala karakterizatuta. Udako hilabeteetan, Pobeña 1890 antolatzen dugu, orain dela 100 urte baino gehiago auzoko egunez egunekoa izan zitekeenaren irudikapena. Horrez gain, Urdazubirekiko Senidetzea ere antolatzen dugu: Nafarroako herri horretan saltzen zen Enkarterriko burdinaren zati bat, besteak beste, eta, beraz, bertara joa-

“*Herritarren arteko kohesioa bideratzen dugu, belaunaldien arteko guneak sortuz*”

ten gara Burdinaren Eguna ospatzera, dago-kion eran karakterizatuta. Irailean, Pobeñako jai nagusiak ospatzen dira, Sokorroko Andre Mariaren omenezko prozesioa ardatz dutela: oroimena galtzen den garaietatik joaten da bertara jendea erromerian. Eta, urrian, Sokorrotxo jaia, Andre Maria bere baselizara itzultzeko. Urteko egutegia Gabon-kantak abestuz ixten dugu. Gabonetako tradizio hori berreskuratzeko helburuarekin, kantutegi bat prestatu zen. Horrela, aflatzera joan aurretik, herritarrak plazan elkartzen dira kantatzeko, eta etxeko txikienek Olentzerorekin hitz egiteko aukera dute bitartean.

G/ Nolatan sortu zen Pobeña 1890 bezalako jardunaldi bat antolatzeko ideia?
E/ 2009. urtean sortu zen, Trueba Dokumentazio eta Zabalkunde Zentroarekin elkarlanean, meatzaritzako jarduera nolakoa zen eta

meatzaritza industrializatzeko ekarri zuen funtsezko aldaketa zenbaterainokoa izan zen ezagutzera emateko helburua hartuta.

G/ Zein da hainbeste jarduera kultural bultzatzeko lanean hain argi tartean sartu den auzo-elkarte baten filosofia?

E/ Pobeñan antolatzen diren ekitaldi guztien asmoa da guztientzat interesgarria izatea eta bizilagun guztien parte-hartzea sustatzea, adin batekoak nahiz besteakoak izan. Gure ustez, belaunaldi desberdinetako pertsonak elkartzeko guneak sortzeak, zinez aberasgarria izateaz gain, erkidegoaren kohesioa sustatzen du.

G/ Zer helburu jarri duzue datorren 2017. urterako?

E/ Ohiko ekitaldiei eustea eta berriak finkatzea izango da gure jomuga.



Genero-indarkeriaren aurkako ibilaldia

Muskizen izan da Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako XIV. Meatzealdeko Ibilaldia, Muskiz, Abanto, Ortuella eta Zierbenako udalek antolatuta. Ekimen hori dagoeneko sendo finkatuta dago, indarkeria matxista desagerraraztea aldarrikatzeko urtero egiten diren jardueren artean, eta, eguraldi onari esker, udalerrri meatzarrietako herritar ugari biltzea lortu zen.



I. Erdi Aroko Azoka antolatu zen Muskizen

Muskizko I. Erdi Aroko Azoka Artekalako oinezkoen eremuan kokatu da, eta hainbat espezialitatetako berrogeita hamar artisau inguru izan dira bertan, elikagaien postuak eta olagarroa eta parrillan egindako haragia dastatzeko tabernarekin batera. Ekitaldia girotzeko, Muskizko Udalak jarduerak antolatu ditu aldi berean, hala nola, dultzaina eta trikitixa kalejirak, ipuin-kontalariak eta artisauen erakustaldiak.